

## / Nabarmenezkoak

- > Getxon hobiratu dituzte Dionisio Aretxabalaren gorpuzkinak (2. or.)
- > KirolInnoba jardunaldia Getxon, apirilaren 5 eta 6an (4. or.)
- > Aste Santurako Kirol-campusak (5. or.)



**Komiki azokak omenaldia egingo die Marika Vilari eta Joker liburu-dendari**  
(3. or)

**Ekitaldi musikala.** Apirilak 3, azteazkena, 19:00etan, Areetako Andrés Isasi Musika Eskolan, "Beethoven", Imprompturen emanaldia. 5€.

**A-  
GENDA**

**Dantza plazan.** Apirilak 6, larunbata, 19:00etan, Malakaten (Andra Marin), Euskal dantzak bertoko taldeen eskutik. Antolatzailea: Itxas Argia.



## AIXE GETXO! SARIAK KULTUR EKIMEN ETA ERAGILEENTZAT

**Ikusizko eta Ikus-entzunezko Arteak**  
**Eriz Moreno**  
Artista eta ikertzailea

**Arte Plastikoak**  
**Ibon Garagarza Berger**  
Sortzaile garaikidea. "Zirri Marra" eta "Bi Hormetara" sortzaileetako bat

**Arte Eszenikoak**  
**Pablo Viar**  
Antzerki, opera eta zarzuela ikuskizunen zuzendaria

**Musika Klasikoa eta Garaikidea**  
**Pablo de Naverán**  
Biolontxelo-jotzailea

**Gaur Egungo Musika**  
**Afrika Bibang**  
Abeslaria

**Literatura**  
**Ana Iturgaiz**  
Eleberrigile eta liburuzaina

**Diseinua**  
**Mercules**  
Larruzko osagarrien enpresa

**Arkitektura eta Inguru publikoa**  
**Gonzalo Carro**  
Arkitektoa

**Gastronomia**  
**Jesús Antonio Tellaetxe Yosú**  
Areetako ostalaria

**Kultura Hezkuntza eta Baloietan**  
**Sonia Díez**  
Irakaslea, psikologoa eta enpresaria

**Kultura Zientifikoa eta Berritzailea**  
**Alicia Alonso**  
UPV/EHU Biokimika eta Biologia Molekularrean katedraduna

**Kultura Ondarea, Hautemangarria eta Hautemangaitza**  
**ACP BOL Asociación Cultural ProBolivia**  
Elkartasuna eta kulturartekotasunaren alde eta arrazakeria, bazterkeria eta xenofobiaren kontrako ekimenak sustatzen dituen

**Aixegaztea, etorkizun oparoko gazteak**  
**Izaro Ieregi González**  
Eskultura, bideoa eta hainbat adierazpen kultural

**Ibilbide Profesional eta Artistikoa**  
**Mª Asunción Yanguas**  
Musika irakaslea. "Eskuz-Esku" eta "Lilura abesbatza" ren zuzendaria

## Andrea Motis eta Madeleine Peyrouxekin batera Julian Lage, Kenny Barron eta Paquito D'Rivera, Getxo Jazzaren egitaraua osatzeko

Getxo Jazzaren saio nagusien egitaraua dagoeneko itxita dago. Aurretik iragarri ziren Andrea Motis (uztailak 3) eta Madeleine Peyroux (hilak 6) artistei Julian Lage gitarra-jotzailea, Kenny Barron pianista eta Paquito D'Rivera klarinete- eta saxo-jotzailea gehitu zaizkie. Guztira, Euskadiko jazz denboraldia zabalduko duen jazzaldi getxotarrak 16 saio hartuko ditu uztailaren 3tik 7ra.

Ostegunean, uztailak 4, Julian Lage arituko da, jazzaren munduan etorkizun handiko artista dena eta musika-ibilbide luzea egin duena nahiz eta 31 urte baino ez izan. Kalitate handiko jazz sortzen ari da bere hirukote berriarekin, Scott Colley baxu-jotzailearekin eta Kenny Wollesen bateria-jotzailearekin.

Ostiralean, uztailak 5, Kenny Barron eskarmentu handiko pianistaren txanda izango da. Bere ibilbide luzean, Barron testuinguru musikal guztietara moldatu da maisutasunez. Bebop estilista, 80ko hamarkada hasieran jazzaren piano modernoaren tradizioaren jasotzaile omen zen: pianoaren sonoritatea bereziki landu zuen, garapen armoniko finak eta ordura arte landu gabeko zenbait formula ahaztu gabe.

Jaialdia uztailaren 7an amaituko da, Paquito D'Rivera klarinete- eta saxo-jotzailea eta zuzendari kubatar ospetsuaren eskutik. Orquesta Cubana de Música Modernaren eta Irakere talde berritzailearen sortzaileetako bat izan zen. Ospe handia eskuratu zuen taldeak nazioartean, jazz, rock, musika klasikoa eta latinoia eta Kubako tradizioa uztartuta. Jazz, bebop, musika klasiko eta latinoko 30 disko baino gehiago grabatu ditu D'Riverak eta baita 12 Grammy sari irabazi ere. Getxon zazpikotean arituko da *Caribian Tour* biran murgilduta; horretarako, Falla, Albéniz, Rodrigo eta Tarrega konpositoreen piezak eta fado portugaldar



Paquito D'Rivera

onenak latin jazzera moldatu ditu.

Jazzaldirako sarreraren salmenta maiatzaren 2an hasiko da, ohiko salmenta-guneetan: Kutxabanken orotariko kutxazainetan, [www.kutxabank.es](http://www.kutxabank.es) webgunean eta Algortako (94 491 40 80) eta Romoko Kultur Etxean (94 466 00 22) telefonoaren bidez. Saio nagusiak eta Talde Lehiaketaren kontzertuak Muxikebarri Getxoko Arte, Kultura eta Kongresu Zentroan izango dira; gainontzeko guztiak Algortako Geltokia plazan.



Julian Lage



## MARTXOAK 28 OSTEGUNA

**Getxon Zuzenean.** 20:00etan, Tom Boyleren kontzertua (indie), Azkorriko Fangaloka Stylen.

**Gizatiar.** Romo-Areetako Emakumeen elkarte sozio-kulturala.

“En tránsito” dokumentalaren emanaldia, Oskar Tejedorrek egina, 18:00etan, Romoko San José parrokiako ekitaldi-aretoan.

## MARTXOAK 29 OSTIRALA

**Hitzaldi musikakal.** 18:00h, Areetako Andrés Isasi Musika Eskolako mediatekan, “Las culturas indoeuropeas de Asia”, José M<sup>a</sup> Bretosen eskutik. Sarrera: 3€.

**Haurrentzako Tailerra.** Romo Kultur Etxea-RKE (17:00h) eta Villamonteko (18:30h.) liburutegietan, “Elkarbanatzeko ipuinak”. Ele bitan. 4-6 urte. [www.getxo.eus/apuntazaitz](http://www.getxo.eus/apuntazaitz)

**Literatura-solasaldia.** Algortako Kultur Etxean, 18:30ean, Medicus Mundi Bizkaia lagunak eta Skolastikako Josune Muñozen eskutik, “Quiéreme bien: violencia contra las mujeres”.

**Zine kluba.** Areetako Andrés Isasi Musika Eskolan, 21:00etan, Mel Gibsonen “Hasta el último hombre” pelikularen proiektzioa eta foruma. 16 urtetik gora. Sarrera: 3,50€.

**Kontzertua.** 20:00etan, Romoko San José Obrero elizan, Ondarreta eta Biotz Alai abesbatzen kontzertua, Amigos de Mufunga Fundazioaren alde.

**Otoitz-kontzertua.** 19:30ean, Algortako Hirutasun Guztiz Santuaren parrokiaren, Salomé Arricibita kantatzaileekin.

## MARTXOAK 30 LARUNBATA

**Ingurumen Aretoa.** 10:00-14:00h, familientzako Escape Rooma: “Zaborreta doktorea” + “Boluuko Esplozazioak”. Beharrezkoa da alde aurretik izena ematea. Tel.: 688 88 35 96 eta <http://www.ingurumena-retoagetxo.eus/?lang=eu>

**KORRIKA.** Oholtza, bertsolarientzako ariketa eskultorikoak 18:00etan Romo Kultur Etxean eta irteerakoan Zaratak 18 Elektroxaranga Santa Eugenia plazan. Antolatzaileak: AEK.

**Antzerkia.** 20:00etan, UTOPIAN (Errotatu poligonoa 6) Olatz Gorrotxategiren “43°13'44"N” antzezki-zuna. Sarrera: 10€.

## MARTXOAK 31 IGANDEA

**Antzerki musikala.** Areetako Andrés Isasi Musika Eskolan, 16:30ean eta 18:30ean, “GO!AZEN 5.0”, Pausokaren eskutik. Euskeraz. 4 urtetik aurrera. Sarrerak agorturik.

**Ingurumen Aretoa.** Txiki tailerrak: “Egin ezazu zure kirikinoa!” 6-14 urte. 10:30etik 13:30era. Beharrezkoa da alde aurretik izena ematea. Tel.: 688 88 35 96 eta <http://www.ingurumena-retoagetxo.eus/?lang=eu>

**Antzerkia.** 20:00etan, UTOPIAN (Errotatu poligonoa 6) Olatz Gorrotxategiren “43°13'44"N” antzezki-zuna. Sarrera: 10€.

**Auto elektrikoaren eskola-lasterketa.** 09:00etatik 14:00etara, Areetako

Geltokia plazan, eta proiektuen aurkezpena RKE-Romo Kultur Etxean. Antolatzaile: Lauro Ikastola.

## APIRILAK 1 ASTELEHENA

**Erakusketa.** Algortako Kultur Etxean, Amanda Riosen “Aixerrota nevado” (argazkiak) erakusketa. Hilaren 25era arte.

**Eskuz-esku Elkartea.** Izena aurretik emateko epea zabaldu da elkarreak eskaintzen dituen ikastaroetan. Martikoena 1, Algorta. Informazio gehiago: <http://eskuzeskuzeko.blogspot.com/>

## APIRILAK 3 ASTEAZKENA

**Ekitaldi musikala.** Areetako Andrés Isasi Musika Eskolan, 19:00etan, “Beethoven”, Imprompturen emanaldia. Sarrera: 5€ (ikastetxeko ikasleentzat 3€).

## APIRILAK 4 OSTEGUNA

**Erakusketa.** Algortako Kultur Etxean, Joseba Gotzonen “Burdina ta Abotsa” (burdinezko euskulturak) erakusketa. Hilaren 27ra arte.

**Getxon zuzenean.** 20:00etan, Clarisseren kontzertua (popa), Algortako The Piper’s Irish Puben.

**Gizatiar.** Romo-Areetako Emakumeen elkarte sozio-kulturala. “Figuras ocultas” pelikularen emanaldia. 18:15ean, Romoko San José parrokiako ekitaldi-aretoan.

## APIRILAK 5 OSTIRALA

**Erakusketa.** Algortako Torrene Aretan, Cristina Miranda de Almeidaen “My walled google earth” (kamerarik gabeko argazkigintza prozesuak eta bideo-instalazioa) erakusketa. Apirilaren 28ra arte.

**Cinema Paradiso.** Areetako Andrés Isasi Musika Eskolan, 21:00etan, azpitoludun jatorrizko bertsoan, “God’s own country” (“Tierra de Dios”) eta foruma. Zuzendari: Francis Lee. Hizk.: ingeleza, 12 urtetik gora. Sarrera: 3,50€.

## APIRILAK 6 LARUNBATA

**Kontzertua.** 20:00etan, Muxikebarri-Getxoko Arte, Kultura eta Kongresu Zentroa, Paddam (ahotsa eta pianoa) bikotearen eskutik, “Chanson française”. Gonbidapenak agorturik.

**Dantza plazan.** Malakaten, Andra Marin, 19:00etan, Euskal dantzak bertoko taldeen eskutik. Antolatzaileak: Itxas Argia.

**Kontzertu sakroa.** 20:00etan, Algortako San Nikolas elizan, Biotz Alai abesbatzen eskutik.

**Ingurumen Aretoa.** 10:15 eta 12:15h (bi saio): Familientzako Escape Room-a: 10:30-13:30. Familientzako tailerra: “Pasta, bertoko eta sasoiko produktuekin errezetak”. Beharrezkoa da alde aurretik izena ematea. Tel.: 688 88 35 96 <http://www.ingurumena-retoagetxo.eus/?lang=eu>

**Itsas Kortxo 2020 Arrantza Txapelketa,** Kirol Portuan.

## APIRILAK 7 IGANDEA

**Haur zinea.** Areetako Andrés Isasi Musika Eskolan, 17:00etan, “Dragon ball super: Broly”. Euskeraz. 7 urtetik gora. 2,50€.

**Ingurumen Aretoa.** Altxorraren bila + Ginkana autogidatua Bolueko hezegunetik. Tel.: 688 88 35 96 eta <http://www.ingurumena-retoagetxo.eus/?lang=eu>

**Mendi irteera.** Larhun (900m). Larhun mendilerroa (Nafarroa). Antolatzaileak: Etorkizuna Mendi Taldea. Izena emateko: [etorkizunamt@gmail.com](mailto:etorkizunamt@gmail.com) eta 606 63 71 28 (whatsapp).

na eta txostenekin. Arratsaldeak. Tel.: 635 806 619.

- **Salgai garbigailua,** egoera onean. Prezioa: 70€ Tel.: 600 86 95 37.

- **Berreskuratu zure argazkiak,** bideoak eta familiaren pelikulak. Pasatu DVD formatara. Tel.: 630 26 58 75.



- **Neska euskalduna** prest dago adinekoak zaintzeko eta/edo arropa litzatzeko. Esperientziaduna.

Norberaren iragarkiak direnez gero, aldizkari hau ez da horien edukien egiazkotasunaren erantzule izango.

Tratu txarren biktimak artatzeko Eusko Jularitzaren telefono zerbitzua: 900 840 111



Frankismoaren errepresaliatua da eta bere gorpuzkinak Cádizetik ekarri dituzte

## Getxon hobiratu dituzte Dionisio Aretxabalaren gorpuzkinak

Aretxabala sendiak Dionisio Aretxabalaren gorpuzkinak hilobiratu zituen aurreko larunbatean, martxoaren 23an, Getxoko hilerrian. Frankismoaren errepresaliatua da Dionisio eta bere gorpuzkinak Cádizetik ekarri dituzte. Udal agintariak, Gogora Institutuko eta lurralde honetako memoria historikoa zenbait elkarteko ordezkariak lagun hartuta, ekitaldi bat egin zuten. Bertan, besteak beste, José Luis Gutiérrez historialari cadiztarrak eta Antton Azkargorta Dionisioren ilobak hartu zuten parte, ikerketari buruzko zehetasunak eskaini eta haren oroimena ohoratzeko. Txistuaren soinuek eta bi dantzari lagundurik, agurra eskaini zitzaion.

### Dionisio Aretxabala

Dionisio Aretxabala Algortan jaio zen. Etxean emaztea eta hiru alaba utzi eta itsas-makinista gisa ontziratu zen merkantzia-ontzi batean, espainiar kos-

taldean zehar kabotaje-lanak egiten zuena. Horrela, Cadizera iritsi zen 1939ko hasieran. Ez zuen filiaziorik, ez politikorik ez sindikalik, baina halere, atxilo eraman eta hiriko espetxean sartu zuten. Kartzelan, sasoi hartan familiari emandako bertsoaren arabera, urkatu zuen bere burua, 1939ko apirilean.

Harrez geroztik, bere gorpuzkinak Cadiz hiriko hilerrian zeuden, bertako udalak 1992an hilerria ixtea erabaki zuen arte, hilerria lekualdatzeko. Hogei urte geroago, prozesu honekin jarraitzeko asmoz, Cadizeko Udalak ikerketa bat agindu zion Andaluziako Juntako Memoria Demokratikoaren Zuzendaritza Nagusiari; ikerketari esker, Dionisio Aretxabalaren gorpuzkinak aurkitu (2016az geroztik gorpuak hobitit ateratzeko egiten diren lanetan) eta identifikatu (probintziako lehenengo DNA proba positiboetako bati esker) ahal izan dira, ondoren sendiari entregatzeko.

## Adierazpen instituzionala Arraza-diskriminazioaren aurka

Udaleko Bozeramaleen Batzordeak, martxoaren 21ean, ospatzen den Arraza-diskriminazioaren aurkako Nazioarteko Eguna dela eta, adierazpen instituzional bat onartu zuen aho batez. Horretan “Udalak euskal gizartearen eta Getxoko gizartearen aberastasun soziokulturala eta aniztasuna gorai-patzen ditu eta gogor salatzen du biztanle-taldeak jatorriagatik, arrazagatik edo etniagatik kriminalizatu edo estigmatizatzeko saiakera oro eta hori susta dezakeen ekintza edo adierazpen xenofobo edo arrazista oro. Izan ere, giza eskubideen kontrakoak

dira, bai eta gure bereizgarri den aniztasunaren, elkarbizitzaren oinarrien eta gure gizartearen funtsezko balioen kontrakoak ere.

Era berean Udalak “gizarte osoari dei egin nahi dio gure aniztasuna eta aberastasun soziokulturala defendatzen jarraitzeko, giza-eskubideekiko, harrerarekiko eta elkarbizitzarekiko konpromisoari eusteko eta gure funtsezko printzipioen aurkako edozein ekintza edo adierazpen arrazista edo xenofobo salatzeko”.

Testu osoa: <https://www.getxo.eus/eu/servicios/comunicacion/notas-prensa/1762>

**\*Hitzaldia Getxolanen.** Datorren asteazkenean, apirilak 3, 18:00etan, Laura Lópezek, marketing aholkulariak eta webguneen diseinatzaile grafikoak hitzaldia eskainiko du Getxolanen egoitzan (Ogoño 1, Areetan), sormenezko zerbitzuak saltzen dituzten ekintzaileentzat. “Nola lortu zure sormenezko zerbitzuak baloratuko dituzten bezeroak” izenburupean, lanaren balioa nabarmentzeko hiru oinarri garrantzitsuenei buruz hitz egingo du eta jarraibideak emango ditu bezeroek sormenezko zerbitzuak errespetatu dituzten, estrategia sinplifikatu bezain eraginkor baten bidez. Prezioei eta salmentei buruz hitz egingo da, baita gainezka eginda dagoen sormenezko industria bezalako sektorean.

Izena emateko: Tel. 94 466 01 40 edo [getxopro@getxo.eus](mailto:getxopro@getxo.eus).

## “Planetaren Ordua”

Getxok Planetaren Ordua 2019 ospatuko du larunbat honetan, martxoak 30, natura zaintzeko konpromisoa erakusteko. Naturaren aldeko Mundu Fondoak (WWF) sustatutako ekimena da Planetaren Ordua, eta Sidney (Australia) hasi zen 2007. urtean, klima-aldaketaren aurkako keinu sinboliko gisa. Bere sustatzaileen esanetan, historiako ingurumen arloko mobilizazio handiena bihurtu da. Izan ere, estatu osoko ehundaka udal-ek, enpresak eta erakundeak bat egin dute ekintzarekin. Aurten ere, Udalak argiak itzaliko ditu udalerriko eraikin berezien fatxadetan, Andres Isasi Musika Eskolan esate baterako; halaber, Areetan eta Arrigunagako hondartzetako paisaia-argiztapenak, Evaristo Churruca Kaiko argiztapen berezia eta Portu Zaharreko zelaiguneko argiak ere amatatuko dira. Larunbatean itzaliko dira ordubetez, 20:30etik 21:30era bitartean.

Bereziki energia aurrezteko proposatutako energia-eraginkortasunerako zenbait neurri hartzeko gonbitea luzatzen zaie hiritarrei (erabilera bakarreko plastikoak ez erabiltzea, garraibide publikoan bidaiatzea eta abar).

Kanpainen parte hartzeko: [www.horadelplaneta.es](http://www.horadelplaneta.es).

## “Irakurri, Gozatu eta Oparitu” ekimena abian

Irakurzaletasuna sustatzea eta euskarazko literatura eta herritako liburutegiak ezagutzaraztea helburu dituen Irakurri, Gozatu eta Oparitu ekimena maiatzaren 31ra arte izango da, Udala, Egizu Elkarrea eta Euskaltzaleen Topagunearen eskutik. Aurrekoetan bezala, udal liburutegietan maileguan hartutako euskarazko liburu bat irakurtzearen truke, irakurleak irakurketa-fitxa erraza bete eta erosteko-txeke bat jasoko du beste euskarazko liburu bat %35 merkeago erosteko ekimenean parte hartzen duten Algortako Elkar, Areetako Bolibar-Elorri edo Romoko Gobelaurre liburu-dendatan. Gainera, apirila eta maiatza bukaeran 30€ko txekak zozketatuko dira parte hartzaileen artean.



## Matrikulazioak Musika Eskolan

Apirilaren 12ra arte, asteartea, zabalik egongo da 2019-2020 ikasturterako ize-na emateko epea Andrés Isasi Musika Eskolako ikasle ofizialentzat, Algortan zein Areetan.

Matrikulazioa egin ahal izango da online, gehienbat, edo aurrez aurre. Online bidezko matrikulazioa Udalaren Administrazio Elektronikorako Bulegoaren bitartez egin beharko da (<https://eudala.getxo.eus/SolucionUnica/Autenticacion/EGestionInicial.aspx?ChangeIdioma=EU>) ziurtagiri digitalaren bidez, edo Musika Eskolako ikasleei emango dizkien erabiltzaile-izen eta pasa-hitzaren bitartez.

2019-2020 ikasturterako, Musika Eskolan erregulatzen diren urteko prezioak aurreko bi urteetako berak izango dira: matrikula 30€ izango da, irakaskuntza instrumentala 351€ eta taldeko irakaskuntza 198€.

### Ikasle berriak

Ikasle berrientzat matrikula egiteko epea maiatzaren 15etik 31ra izango da; haiek ere aurrez aurre edo online egin ahalko dute.

Informazio gehiago: Areetako Andrés Isasi Musika Eskolan (Las Mercedes kalea 6), Algortako Andrés Isasi Musika Eskolan (Basagoiti Etorbidea 77), [aisasi@getxo.eus](mailto:aisasi@getxo.eus) eta [www.getxo.eus/musikaeskola](http://www.getxo.eus/musikaeskola)

## “Go!azen 5.0”rako sarrerak agortuta

Datorren igandean, martxoaren 31n, Areetako Andrés Isasi Musika Eskolan *Go!azen 5.0* ikuskizun musikala eskainiko dute eta sarrerak agortuta daude jada. Saioak, euskaraz, 16:30ean eta 18:30ean izango dira.

Oraingo honetan, uda iritsi da berriro ere eta *Basakabik* atek zabaldu ditu, Amaiarekin, ingelesko irakasle berria. Berarekin Zuri dator, bere alaba, eta sekretu bat dakar: Amaia Eliren aitaren bikotekidea da; hortaz, Eli eta Zuri ahizpaordeak dira. Eta horrekin batera, abentura, maitasun-istorio eta lagunen arteko kontu berriak sortuko dira. Batzuetan umorez beteak, beste batzuetan berriz, negarra eragingo digutenak.

## “3 stolen Cameras” dokumentala

*3 stolen Cameras* izenburupeko dokumentala aurkeztuko da apirilaren 5ean, ostiralean, Algortako Villamoneko Kultur aretoan. Marrokok okupatutako Mendebaldeko Sahararen giza eskubideen urraketak erakusten dituen lanaren proiektzioa 19:00etan hasiko da, ATFAL Sahararen aldeko Getxoko elkarteak antolatuta, Udalaren laguntzarekin. Besteak beste, Ahmed Ettanjik zuzendutako eta Equipe Mediak ekoiztutako lanak ezkutuan grabatutako lanak erakutsiko ditu, Marrokok ez duelako atzerriko kazetariak sartzen uzten. Ahmed Ettanji ekitaldian izango da. Proiektzioarako sarrera doakoa izango da.



## Komiki azokak omenaldia egingo die Marika Vilari eta “Joker” liburu-dendari

Urriaren 18tik 20ra Getxoko Komiki Azokaren beste edizio bat egingo da eta, oraingo honetan, Marika Vila komikigile, ilustratzaile eta ikertzaileari eta Joker liburu-denda bilbotarra-

ri egingo die omenaldia. Aurreko urteetan bezala, azoka bi lekutan egongo da: Areetako Geltokia plazako karpan (saltokiak) eta Romoko Kultur Etxean (jarduerak eta fanzine-gunea).

### Marika Vila

1949an Bartzelonan jaioa, Marika Vila komikiaren eta ilustrazioaren munduan abiatu zen 70eko hamarkadan eta hasieratik erakutsi zuen emakumearen eskubideen aldeko jarrera. Bere ibilbide profesionallean Suedia, Erresuma Batua, Italia eta Espainiako argitaletxeentzat lan egin du.

Bere lanak argitaletxe eta argitalpen ugarietan kaleratu dira, besteak beste honako hauetan: *Selecciones Ilustradas, D.C., Thompson, Norma, Troya, Totem, Toutain, El Jueves, El Víbora ...* Bere lan ospetsuenak *Si en el día una mujer..., Desconfía..., La mujer y la comida, Dossier Amparo Torrego, Penélope, Tango, Amablemente, Trip, Reflejos (1 y 2), Devilidad* eta *Mata-Hari*.

Komikigintzaz gain, Marika Vila beste eremu batzuetan ere aritu da. Horrela, argitalpenen koordinatzaile, idazle eta Komikiaren lengoia eta generoko analisiaren ikertzaile ere bada. Halaber, generoko kultura-identitatearen sormen eta irudikapenean doktorea da eta 1976. urte-tik aurrera emakumeak gizartean, hezkuntzan eta komunikabideetan duen rolari buruzko hainbat gogota-eremutan parte hartu du.

### Joker liburu-denda

Bilboko Joker liburu-dendak Kultura Ministerioaren lehenengo Kalitatezko Liburu-dendetarako saria jaso zuen. 1994. urtean zabaldu zuten Santutxu auzoan eta handik 4 urtera lekuz aldatu zen, Bertendona kalera. Beste bi leku-aldaketa izan ondoren, badira 5 urte Euskalduna kaleko 7. zenbakian kokatu zela. Hor, 300 metro koadro baino gehiagoko lokalean, komiki eskaintza zabala du. Halaber, Joker kultura-jardueragatik nabarmentzen da, urtean 40 ekitaldi baino gehiago antolatzen baititu (sinatze-saioak, hitzaldiak, mahai-inguruak, erakusketak eta tailerrak...).



### “Viaje al centro de mi tierra”

Sarah Rodríguez Cigaraneke (Bilbo) *Viaje al centro de mi tierra* liburua aurkeztu du Getxon. Egileak bere bizimodu erosoa denboraldi batez uztea erabaki zuen eta Marrokitik hasi zuen bidaia bat bere senarrarekin eta bost seme-alabekin. Hasiera data ezagutzen zuen berak, baina ez itzulera ezta beste herrialde batzuetatik ibilbidea ere. Hamar hilabeteko bidaiaren ondoren, Sarah-k bizi-esperezia hori paperera pasatzea erabaki zuen. 40 kapitulu labor dira, eguneroko gisa, bidaia fisikoa eta transformazioa kontatzeko.

# KIROLINNOBA 2019 GETXO

BERRIKUNTZA ETA KIROLA  
DEPORTE E INNOVACIÓN

APIRILA 5-6 ABRIL

Getxo Elkartegia

(Ogoño 1, 48930 Areeta - Getxo).



Proiektu berritzaileak aztertuko dira jarduera fisiko-, osasun- eta kirol-arloetan

## KirolInnoba jardunaldia Getxon, apirilaren 5 eta 6an

Apirilaren 5ean eta 6an, Udalaren Ekonomia Sustapenerako eta Enplegu Zerbitzuak-Getxolanen egoitzan (Ogoño 1, Areeta) KirolInnoba jardunaldia egingo dute; hau da, topagunea izango da jarduera fisiko-, osasun- eta kirol-arloetako proiektu berritzaileak aztertzeko.

Argibide enpresak antolatua, jarduera fisiko- kultura-, aisia- eta osasun-arloetan espezializatutako aholkularitza enpresa, Udalaren eta Bizkaiko Foru Aldundiaren lagun-

tza dute. Helburua da harremanetan jartzea, alde batetik, jarduera fisiko-, osasun- eta kirol-arloetako proiektu berritzaileak dituzten enpresak eta, bestetik, ekintzaileak, udal teknikariak eta kirolarekin lotutako proiektu, erakunde edo pertsonak. Izan ere, era honetako jardunaldiak bultzatu nahi dira, enpresa, profesionalak eta eragileak elkartzeko, enpresa-proiektuak garatu ditzaten.

KirolInnobaren azelerazio programa

jarraitu baten bidez sinergiak, harremanak eta proiektu berriak sortuko dira bi jardunaldiren bitartez, baita erantzutea ere mahai gainean jarriko diren proposamen eta erronkei. Kirol-arloko berrikuntza proiektu bat dutenak eta hori ezagutarazi eta aurkeztu nahi dutenak harremanetan jar daitezke honako helbide elektronikoa honetan: [kirolinnoba@gmail.com](mailto:kirolinnoba@gmail.com)  
Informazio gehiago eta izena emateko: [www.kirolinnoba.com](http://www.kirolinnoba.com)

## Apneako Euskadiko Txapelketa

Fadurako barruko igerilekuan egingo da larunbat honetan, martxoaren 30ean, goizean, Euskadiko lehen Indoor Apnea-Txapelketa. Txapelketan, hiru modalitate egongo dira: apnea egonkorra, apnea dinamikoa hegatsik gabe eta apnea hegatsekin. Hiru proben helburua da ur azpian arnasa hartu gabe mantentzea ahalik eta denbora gehien. Apnea egonkorrari dagokionean, 3 eta 6 minutu arteko denborak egitea espero da. Apnea dinamikoaren proban, berriz, hegatsik gabekoan, 50 eta 125 metro artean igeri egin daiteke eta hegatsiko txapelketan 75 eta 150 metro artean.

## Igeriketa: zilarra umeen estatukoan

Getxo IW elkarteko 4x100 estiloetako errelebo-taldeak zilarrezko domina irabazi zuen umeentzako Espainiako Igeriketa Txapelketan, Gijonen, duela gutxi. Getxoko taldea osatu zutenak: Keltse Santisteban, Allison Ramírez, Alicia Angelone eta Lexuri Olalla. Horien marka 4:26.60 izan zen, Madrileko erkidegoko CD Gredos San Diego txapeldunak baino hiru segundo gehiago.

Bakarka, Keltse Santistebanek Euskadiko errekorra hautsi zuen 15 urtekoen 200 metroko bizkar-igeriketan, baita Bizkaikoa ere 100eko bizkar-igeriketan; Alicia Angelonek 14 urtekoen Bizkaikoa ondu zuen 100eko bular-igeriketan; Allyson Ramírezek Bizkaikoa 15 urtekoan, 50eko tximeleta estiloan. Keltsek, Amets Barandak, Magdalena Mussonsek eta Ane Ibarrondok Bizkaikoa hautsi zuten, absolutuen 4x50 estiloetan.



## Emakumezkoen hirugarren Belar-hockey +35 Txapelketan

Asteburu honetan, larunbat eta igandean, martxoak 30 eta 31, Belar-hockeyko Emakumezkoen +35 Mailako Hirugarren Txapelketa (Mamis bezala ezaguna den maila) jokatu da, Hockey Stick Getxo Klubak antolatuta, Fadurako kirol instalazioetan.

Kirol ikuskizun horretan, Getxo Kirolak babesle duela, Real Club Jolaseta (Getxo), Real Grupo de Cultura de Covadonga (Gijón) eta Hockey Xaloc (Valentzia) taldeak izango dira. Lehiaketa hau, kirola maitatu eta partekatzen duten, eta zelai barruan eta zelaitik kanpo taldean gozaten duten emakumeak

ordezkatzten ditu.

Hockey Getxoko amatxoaren taldea 2013an sortu zen. Gaur egun, 35 eta 64 urte bitarteko 28 jokalaririk ditu; Faduran entrenatzen dute, astearte eta ostegunetan, 18:00etatik 19:00etara, eta larunbatetan, 12:00etatik 13:00etara. Belar-hockeya ezagutu edo praktikatu nahi duten emakume guztiak larunbatetan hurbil daitezten animatzen dituzte etxeko amatxoek.

Beste alde batetik, Hockey Stick Getxo taldearen sortzaileak, Verónica Grandek, *Berdintasuna indartuz* saria jaso zuen *Getxo Sasoi Sasoi*an Kirol Sarien azken Galan.



## Getxo Futbola Fundazioa sortu da

Futboleko Getxo Marka osatzen duten taldeek (C.D. Getxo, S.D. Neguri, Bizkerre F.T., C.D. Galea eta Iturgitxi F.C.) fundazioa sortu dute. Bere helburua da forma juridiko horrekin oinarrituko futbolaren sustapena egituratzea eta legezko, lan-arloko eta arlo ekonomikoetako gaietarako kudeaketa-esparru bakarra partekatzea.

Fundazioa sortzeko hitzarmena aurreko ostegunetan, martxoaren 21ean, sinatu zuten Fadurako ekitaldi-aretoan. Ekitaldiaren buru izan ziren Iñaki Gerediaga C.D. Getxo elkarteko eta fundazio berriaren presidentea; Julio García Galea-

ren presidentea eta erakunde berriaren diruzaina; Jon Bilbao eta Mikel Pardo Neguri eta Iturgitxiko presidentek, hurrenez hurren; Jaime Marcos Bizkerreko presidenteordea; Asier García kirol koordinatzailea; eta Borja Fernández Getxo Futbolaren koordinatzailea.

Fundazio honen sorrerari esker urrats bat gehiago emango da Getxo Futbola indartzeko. 2007an jaiotako eskola da, jokalaririk guztien dinamizatzeko eta gizartearatzeko erakunde izateko. Kirola sustatzea ez ezik, jokalarien artean harreman soziala eta familiako giroa ere ezarri nahi ditu.

## ASTE SANTURAKO KIROL-CAMPUSAK

ANTOLATZAILEA	PROGRAMA	ADINA	EGUNAK ETA ORDUTEGIA	PREZIOA	HARREMANA
Getxo Gimnastika Kluba	Gimnasia erritmikoarekin loturiko jarduerak Fadura	5/18 urte	Apirilaren 15etik 26ra. 8:30-14:00	84/160€	Emaila: <a href="mailto:club_ritmica_getxo@hotmail.com">club_ritmica_getxo@hotmail.com</a> Tfnoa: 685 545 032
Getxo Saskibaloia Taldea	Saskibaloia Gobelan	6/14 urte	Apirilaren 15etik 26ra. 8:30-14:00	25/140€	Emaila: <a href="mailto:getxosaski@gmail.com">getxosaski@gmail.com</a> Tfnoa: 657 773 523
Getxo Igeriketa Bolue Kirol Elkarte	Igeriketa, kirol anitza eta tailerrak Fadura	4/12 urte	Apirilaren 15etik 26ra. 8:30-14:00	25/150€	Emaila: <a href="mailto:urkogiw@gmail.com">urkogiw@gmail.com</a> Tfnoa: 663 871 318
Getxoko Hondartzak Tenis Kluba	Tenis eta kirol anitza Fadura	6/18 urte	Apirilaren 15etik 26ra. 8:30-14:00	90/190€	Emaila: <a href="mailto:tenisplayasdegetxo@gmail.com">tenisplayasdegetxo@gmail.com</a> Tfnoa: 685 751 688
Fadura Tenis Kluba	Tenis teknifikazioa Fadura	8/18 urte	Apirilaren 15etik 26ra. 9:30-14:30	150€	Emaila: <a href="mailto:tenisfadura@gmail.com">tenisfadura@gmail.com</a> Tfnoa: 609 400 742
Arenas-Romo eta Romo Eskubaloia Kirol Klubak	Futbola eta eskubaloia Gobelan	5/14 urte	Apirilaren 15etik 26ra. 8:30-14:30	300€ (con comida)	Emaila: <a href="mailto:club@arenasromo.com">club@arenasromo.com</a> Tfnoa: 657 268 606 / 669 163 245
Getxo Azkarrenak Iristaketa Kirol Kluba	Lerroko irristaketa eta kirol anitza Gobelan	3/12 urte	Apirilaren 15etik 26ra. 8:30-14:30	25/130€	Emaila: <a href="mailto:ander.i@clubpatinajelineagetxo.com">ander.i@clubpatinajelineagetxo.com</a> Tfnoa: 664 570 994
Getxo Xake Kluba	Xakea erreminta pedagogiko eta sozializatzaile gisa Gobelan	6/16 urte	Apirilaren 15etik 26ra. Bi txanda: 08:30-13:00 15:00-18:00	30/100€	Emaila: <a href="mailto:info@damagaztea.com">info@damagaztea.com</a> Tfnoa: 688 677 874
CD Getxo	Futbola Fadura	5/14 urte	Apirilaren 15etik 26ra. 8:00-14:00	20/120€	Emaila: <a href="mailto:campus.getxofutbola@gmail.com">campus.getxofutbola@gmail.com</a> Tfnoa: 615 982 663
Haszten Elkarte	Campus inklusiboa eta egokitua, Getxo Saskibaloia Taldearekin eta Getxo Azkarrenak Iristaketa Kirol Klubarekin elkarlanean, Gobelan	8/21 urte	Apirilaren 15etik 26ra. 9:00-14:00	24€/dia	Emaila: <a href="mailto:hasztenkirola@gmail.com">hasztenkirola@gmail.com</a> Tfnoa: 699 609 588
Getxo Show Iristaketa Kluba	Iristaketa Andra Marin	4/16 urte	Apirilaren 15etik 26ra. 9:30-13:30	20/105€	Emaila: <a href="mailto:info@cpsshowgetxo.com">info@cpsshowgetxo.com</a> Tfnoa: 615 501 624
Getxo Iristan Kirol Kluba	Hockey patinak eta irristaketarako hastapena Fadura	4/11 urte	Apirilaren 23tik 26ra. 9:00-14:00	60€	Emaila: <a href="mailto:klub@getxoirristan.com">klub@getxoirristan.com</a> Tfnoa: 670 733 824
La Kantera Skate Kluba	Skate klaseak Fadura	6/18 urte	Apirilaren 15etik 26ra. 9:30-13:30	35/140€	Emaila: <a href="mailto:skateskola21@gmail.com">skateskola21@gmail.com</a> Tfnoa: 649 932 284
Getxo Saski B-Pro Camp	Saskibaloia teknifikazioa Fadura	12/17 urte	Apirilaren 14tik 17ra. 9:30-13:30 eta 15:30-18:30	135€	Emaila: <a href="mailto:getxosaski@gmail.com">getxosaski@gmail.com</a> Tfnoa: 654 205 412
Getxo Kayaka	Bela, kayaka eta ingurumena	7/14 urte	Apirilaren 15etik 26ra	90/120€	Emaila: <a href="mailto:getxokayaka@yahoo.es">getxokayaka@yahoo.es</a> Tfnoa: 652 133 540

## Showcase Basketball, 14an Fadura

Getxo Saski Baloia Taldeak eta Tridente saskibaloia Plataformak Showcase Basketball antolatu du kirol horretan etorkizun oparoa izan dezaketen gazteak hautatzeko proba, Estatu Batuetako institutueta ikasketak egiteko bekak lortzeko. Apirilaren 14an egingo da, 09:30ean, Fadura.

Bigarren aldiz egingo da Getxon hautatze-prozesu hau, eta 2002 eta 2007 artean jaiotako gazteei dago zuzenduta. Ezinbestekoa da nota onak edukitzea eta lanerako prest egotea.

Beka jasotzeko interesa duten baina beste kirol bat egiten duten pertsonak apirilaren 13an, larunbata, informatu daitezke, 17:00etan, Fadura ekitaldi-aretoa (beharrezkoa da lekua erreserbatzea).

Argibide gehiago: tel.: 654 205 412.

## Cazorla Mendira irteera

Etorkizuna Mendi Taldeak Aste Santuan Cazorla Mendira joateko irteera antolatu du. Besteak beste, Ubeda eta Bazarako bisita gidatuak egingo dira, Cazorlan gaua igarotzeko ostatua hartuko da, gosaria barne, eta hainbat mendi-ibili eta -ibilaldi egingo dira; tartean, aipatzekoa da 1.847 metroko Gijillo Mendi-tontorrera igotzea. Bidaia autobusez egingo da, apirilaren 17 eta 22a artean, eta 360 € balio du. Argibide gehiago: [etorkizunamt@gmail.com](mailto:etorkizunamt@gmail.com).

## 2020ko parte-hartze izaerako aurrekontuak. II. FASEA: Proiektuak lehenestea

Martxoaren 22tik apirilaren 4ra arte



HABetan, eta Andra Mari, Gobela eta Fadura kiroldegietan jarritako kutxen bidez



Proposamena [gobenuirekia@getxo.eus](mailto:gobenuirekia@getxo.eus) helbidera bidaliz



[www.getxo.eus/partehartu](http://www.getxo.eus/partehartu) udal webgunean egokitutako galdetegi digitala betez



Algorta, Areta eta Bidezabalgo geltokien inguruetan jarritako postontzien bitartez



Informatzeko jarriko diren karpeta hurbilduz hurrengo egunetan: martxoaren 28an, osteguna, Bidezabalgo metro geltokitik hurbil dagoen plazan; martxoaren 29an, ostirala, Algortako Geltokia plazan eta martxoaren 30ean, larunbata, Aretako Geltokia plazan. Ordutegia: 11:00-14:00 eta 16:00-19:00.



**Getxo**  
*bizi ezazu*

**LAGUNDU GETXO HOBETZEN!**

<http://www.getxo.eus/gobenu-irekia>

# Udal talde politikoaren iritzia



## GETXO ZUREKIN SUSTATUZ

Gure ametsa Getxo sustatzen jarraitzea da, eta zurea? Zeintzuk dira zure ametsak? Zure kezkek azalduko dizkiguzu? Lagun diezagukeen ekarpenik duzu? **GETXO HERRIGINTZAN SUSTATUZ**

[amaiagirremunoa@gmail.com](mailto:amaiagirremunoa@gmail.com)

Facebook: Amaia Agirre Muñoa

Instagram: @amaiagirremunoa

[www.amaiagirre.com](http://www.amaiagirre.com)

“ Amaia Agirre Muñoa naiz, Getxoko alkatea izateko hautagoia. Aitzindaria den herri batekin amets egiten dut. Kultura, aniztasuna, hizkuntza, kirola eta natura sustraiekin daraman herria dut buruan. Pertsona guztiak beren bizi proiektu osoa garatu ahal izango duten herri bizi bat desiratzen dut. Berdintasunean, zintzotasunean, elkartasunean eta erantzukizunaren balioetan oinarritutako herriarekin amesten dut. **Getxo dut buruan, eta zeuk?** ”

Soy Amaia Agirre Muñoa, candidata a la alcaldía de Getxo. Sueño con una ciudad de vanguardia ligada a la cultura, diversidad, euskera, deporte y compromiso con el medio ambiente. Sueño con un Getxo vivo, donde todas las personas puedan desarrollar su proyecto de vida. Una ciudad basada en los valores de la igualdad, la honestidad, la solidaridad y la responsabilidad. Sueño con seguir impulsando Getxo, ¿y tú?



PSE-EE  
PSOE

## ARRAZAKERIAREN AURKA

Hilaren 21ean Arrazakeriaren Aurkako Nazioarteko Eguna izan zen. Bozeramaileen Batzarrak, alderdi sozialistaren babesarekin, beste jatorri batzuetako pertsonekin egindako trukeei eta euren ekarpenei esker duela zenbait hamarkadatik eraikitzen gabiltzan euskal gizartearen aniztasun soziokulturala ospatu zuen. Euren jatorria, arraza edo etniagatik biztanle-taldeei egindako irain eta kriminalizazio guztiak baztertzen ditugu. Sozialistok uste dugu gaur egun gehien zabaldu den arrazakeria- edo xenofobia-mota APOROFOBIA dela, hots, txiroenganako gorrotoa. Nolabaiteko gaitzespena edo urduritasuna eragiten dute patera batean gure kostaldera heltzen direnek, baina ez dute horrelakorik eragiten luxuzko yateetan bidaiatzen duten xeke zein dirudun arabiarrek. Batzuek deseroso sentitzen dira azal iluneko pertsonak kalez kaleko salmentan aritzen direla ikustean, bizirik irauteko edo nekez bizi ahal izateko egiten badute ere; aitzitik, azal-kolore bera duten baina kirolari edo zinemari lotutako lan-jardura duten pertsonak normaltasun osoz eta askotan irrikatsu onartzen dituzte. Aporofobia aurreiritzirik zabalduena dela deritzogu. Aurre egin diezaiogun.

Cs

## JUAN CARLOS I

Martxoaren 23an eta 24an egin ziren “Juan Carlos I” izeneko hegazkin-ontziaren ate irekien jardunaldiak benetan arrakastatsuak izan ziren. Milaka pertsonen hainbat ordu eman zituzten ilara kilometrikoetan itxaroten gure armadaren intsignia den itsasontzia ikusteko. Getxoko Ciudadanos udal-taldeko kideok eskerrak eman nahi dizkiegu bertaratu zirenei, erakutsi baitzuten armadak harrera ona duela Getxon. Hala eta guztiz ere, batzuek bere egin zuten guztion iritzia eta ikuskizun lotsagarria eman zuten bisita lausotu nahian. Twitter: @CsGetxo



## AISIALDIKO ZENTROA POLIGONO GORRIAN

Alderdi Popularraren proposamena:  
“Poligono Gorria”  
Aisialdi eta Kulturako Zentroa



Udal-taldeak Getxoko zenbait auzoz ahaztu zen aspaldi, horren adibide garbia dugu Algortako poligono gorria. Gure ustez, sasoi da Getxoko gainerako tokietan eskaintzen diren arreta eta zerbitzuak ere eskaintzeko gune horretan. Horretarako, lehen urrats gisa, proposatu nahi dugu abandonatutako eraikinetako bat aisialdiko eta kulturako zentro bilakatzea. Besteak beste honako hauek dituen zentroa nahi dugu:

- Arretarako Udal Bulegoa.
- Aisialdirako eta jostetarako gune bat.
- Kultur gune bat, ordenagailuak eta ikasteko gela dituen.
- Erabilera anitzeko hainbat gela.
- Komun publikoak.



## PUNTA BEGOÑAKO GALERIA PUBLIKOEN ALDE

2018ko uztailean, lehenengo aldiz entzun genuen, Hirigintza Batzordean, EAJ alderdiak fundazio bat sortzeko asmoa zeukala Punta Begoñako galeriak kudeatze aldera. Ekarpenean egiteko epe bat ireki zen, eta GUK taldeko kideok argi eta garbi esan genuen ez geundela horren alde; izan ere, fundazioaren bitartez, erakunde **PRIBATUEN** kapitala sartu ahalko da. Adierazi genuen partzuergo bat nahiago genuela, erakunde **PUBLIKOAK** soilik biltzen baitira bertan. Ez genuen eskari horren inguruko

erantzunik jaso. Alabaina, joan den astean fundazioa martxan jartzeko proposamena aurkeztu zuten, baita estatutu batzuk ere, zeinetan argi adierazten zen galeria horietan antolatutako ekintzen koordinazioa, kudeaketa nahiz fiskalizazioa, hein handi batean, erakunde **PRIBATUEN** esku egongo dela. Gure taldeak beti esan du galeriek okupatzen duten espazioa modu publikoan kudeatu beharra dagoela; horrela, erabilera publikoa eman ahal izango zaie eta herritar guztion sarbide inklusiboa bermatuko da, herritar zein erakundeek aha-

lik eta hoberen aprobetxatu dezaten. Aitzitik, EAJren urratsei erreparatuz gero, oso litekeena da galeriak jardura pribatuetarako erabiltzea. Zergatik uste dugu hori? Punta Begoñako Galerien balioa nabarmentzeko lana eta horiei buruzko ikerlana egin aurretik, gogoratu nahi dugu udal honek hotel-kate bati eman nahi izan ziola eraikina, hura erabat eraberritzeko asmoa zeukala adierazi bazuen ere. Ez dugu uste EAJk asko aldatu duenik galerien etorkizunari buruz duen iritzia. Harremanetarako: [guk@getxo.eus](mailto:guk@getxo.eus)



## GERRA-ONTZIEN BISITARIK EZ!

Getxoko EH Bildutik argi eta garbi adierazi nahi dugu ez gaudela ados ‘Juan Carlos I’ gerra-ontziaren bisitarekin Getxon (Bizkaian). Itsasontziak kuriositatea piztu zuen Getxon, beste hainbat gertakari sortzen duten moduan. Baina gure ustez, erakundeetatik ezin ditugu sustatu gerra, heriotza eta injustizia bultzatzen dituzten ekimenak. Gainera, **gerra-ontziak gure kostaldean maniobra militarrik egiten dituen bitartean, Espainiako Gobernuak Aita Mari eta Open Arms ontziak**



**blokeatu ditu, elkartasuna eta giza eskubideak defendatzen dituen arren.** Eta ez dugu ahaztu behar, Ongi Etorri Errefuxiatuak plataformak azpimarratu duen bezala, gerra-ontzi honen eraikuntzak izan duen kostuarekin, zazpi Urdulizeko Ospitale eraiki ahalko lirakeela. Eta bere urteko mantenimenduari, sei eskola. EH Bildutik lanean jarraituko dugu etorkizunean gerra-ontzien etorrerak ekidin eta Getxoko Udalaren desadostasuna adierazteko.